Amundsen titaniozko eremuetan

NEREA VIRTO
(Guggenheim)

Babelgo dorrea Euskal Herrian daukagu. Ba al zenekiten? Guggenheim museoko korridoreetara hurbiltzera gonbidatzen zaituztet erakusketak muntatzen ari direnean. Udazkenean, Errusiari buruzko erakusketa eraisten eta *% 100 Afrika* izenekoa eraikitzen ari ziren bitartean errusiera, frantsesa, ingelesa, euskara, gaztelania eta Boli Kostako Bete etniaren hizkuntza entzun zitezkeen kafetxoa hartu bitartean.

Eleaniztasuna

Testuen itzulpenari dagokionez ere antzerako zerbait gertatzen da. 1997an inauguratu zenean museoaren jarduerarako hartu zen erabaki estrategikoetako bat komunikaziorako hizkuntza ofizialak hiru izatea izan zen: euskara, gaztelania eta ingelesa. Ordutik, eta arrazoi ezberdinegatik –bisitarien eskariak, beste hizkuntza txikietako hiztunei elkartasuna adierazteagatik, herrialde ezberdinetako erakunde eta artistekin lan egiteagatik– lan hizkuntzak asko ugaritu dira.

Hala, bisitariek hormetan ikusten dituzten azalpen testu, txartel eta argibide guztiak hiru eletan daude. Baina informazio-mahaian banatzen den @ aldizkaria –momentu horretan ikusgai dauden erakusketei buruzko azalpenak eta bestelako argibide praktikoak dituena– sei hizkuntzatan argitaratzen da: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, galegoa eta katalana; eta azalpenak entzun nahi izanez gero, entzuteko gidak beste hainbeste hizkuntzetan eskuratu daitezke: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera.

Askotariko testuak

Hala ere, orain arte aipatu guztiak izozmendiaren tontorra besterik ez dira. Bisitariek itzulitako hainbat testu irakurtzen dituzte, baina museoak gizarteko bestelako kidegoekin dituen harremanetarako ere

(ikastetxeak, museoaren lagunak, hedabideak, museoa babesten duten enpresa eta erakundeak) itzulpen behar asko sortzen dira. Horrezaz gain, museoko arlo askok mundu osoko kideekin testuak elkartrukatzen dituzte (arte ardura arlokoek beste museoetako komisario eta kontserbatzaileekin; erregistroko arlokoek mundu osoko garraio enpresa eta aduana-administrazioekin; legeaholkularitza eta finantzetakoek New Yorkeko kideekin) eta hor ere itzulpenak tartean izaten dira.

Bestetik, kontuan hartu behar da erakusketa katalogoak gehienetan beste hizkuntzetatik itzultzen direla. Eskuarki ingelesetik. Bestetan, Europako bestelako museoekin lankidetzan egiten diren erakusketen kasuan, jatorrizko testuak frantsesez, alemanez edo italieraz idatzita egon daitezke, artikuluen egileen hizkuntzaren arabera.

Datuak

Ez zaituztet aspertu nahi Escorialen eta horrelakoetan egiten duten moduan datu gehiegi aipatuz, baina adibide gisa ondokoak argigarriak izan daitezke: Guggenheim Bilbao Museoak 200etik gora itzulpen bidaltzen ditu kanpora urtero, luzera eta eduki askotarikoak. Batzuk eskutitz soilak izan daitezke; besteak, berriz, 40.000 hitz dituzten katalogoak. Esate baterako, 2006. urtean ia 20.000 euro erabili zituen museoak katalogoetarako testuak itzultzen eta 50.000 euro bestelako itzulpenak egiteko.

Zailtasunak

Hasieratik izan dugun arazo larriena euskarazko terminologia izan da. Gaur egungo artearen arloa ezer gutxi jorratu da gure hizkuntza honetan. UZEIren *Artea* hiztegiak eta bestelako hiztegi eta glosategiek ez dituzte azken joera eta teknikak biltzen eta askotan ez datoz bat ("keinu-pintura", "keinuzko pintura" edo "keinubidezko pintura"?). Erreferentzi lanak gehienetan itzulpenak dira (Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratutako *Arte Modernoaren Hiztegia* edo *Arte modernoaren ildo analitikoak*). Azkenean betiko leloa, erabilgarriena arteari buruz euskaraz idazten dutenek erabiltzen duten fraseologia izaten da (*Argia*, *Berria*,…).

Arazoa museoan lantzen dugun arte mota izendatzeko moduarekin hasten da. "Arte garaikidea" (euskaraz idazten duten arte kritikariek, bestelako museoek eta itzultzaile gehienek erabiltzen duten terminoa) ala Ibon Sarasolak *Euskara batuaren ajeak* liburuan proposatzen duen "gaur egungo artea"? (erronka botako nioke nik Sarasola jaunari hainbestetan errepikatzen den "arte moderno y contemporáneo" bikote bereiztezina itzultzeko).

Oztopo handienak ez dira arte mugimenduak eta korronteak izendatzerakoan sortzen, artegintzan eta museo baten egunean-egunean sortzen diren hainbat teknika eta jardun izendatzeko terminologiarekin baizik. Artea sortzearekin (teknikak, baliabideak, tresnak, eta abar) eta museografiarekin zerikusia duen guzti horrekin alegia. Nola itzuli adibidez ingelesez erabiltzen den "Curator": arte arduraduna? edo kontserbatzailea? (frantsesez eta gaztelaniaz hartu den bidetik). Nola egin arte modernoa eta garaikidea duten museoek "Conservator" eta "Restorer" artean egiten duten bereizketa emateko?

Egia esan IZOko terminologia atalean egin nuen lana asko eskertu dut museoko lanean. Behintzat terminoak sortu beharra izan dudanean ez dut itsu-itsuan jo. Hala ere hamar urte hauetan beste itzultzaile eta idazleek egindakoari esker askotan berrikusi ditugu gure erabakiak eta arte-sormenaren ildo berriek irtenbide irudimentsuak bilatzera akuilatu gaituzte.

Batzuetan Amundsen bezala sentitzen naiz, poloko izotzetan bakar-bakarrik galduta, baina lan honek badu bide berriak irekitzen dituen esploratzailearen zirrara hori.



Amundsen en las soledades de titanio

En la actividad cotidiana de esta Babel posmoderna, el multilingüismo es lo habitual: durante la exposición *África 100%* pudimos escuchar en el pasillo el idioma de la etnia Beté de Costa de Marfil; los acuerdos de préstamo se hacen en ruso, inglés, francés o alemán y los comisarios nos llegan de muchos países. La propia decisión estratégica fundacional de optar por el trilingüismo (euskera, español e inglés) en todos los soportes del Museo Guggenheim Bilbao ha generado un volumen de traducción de proporciones insospechadas. Sólo en el año 2006 el Museo encargó traducciones por valor de unos 70.000 euros. Añádase a esto la variedad de la tipología de los textos (soportes para los visitantes, textos educativos, catálogos, documentación aduanera, contratos…), para vislumbrar las dificultades a las que nos enfrentamos. De todas formas el primer y más importante escollo con el que nos hemos topado es la escasez de terminología y de textos de referencia relacionados con el arte moderno y contemporáneo en euskera. Muchas veces nos sentimos como exploradores en *terra incognita*.

Amundsen dans les solitudes du titane

Le multilinguisme est devenu habituel dans l'activité quotidienne de ce Babel postmoderne qu'est le Musée Guggenheim : lors de l'exposition *Afrique 100%* nous avons pu entendre dans les couloirs la langue de l'ethnie Bété de Côte d'Ivoire ; les accords de prêts d'œuvres d'art se font en russe, en anglais, en français ou en allemand, et les commissaires qui viennent ici sont originaires de différents pays. La décision stratégique de choisir le trilinguisme (euskara, espagnol, anglais) dans tous les supports du musée Guggenheim, dès sa création, a généré un volume de traductions inouï. Rien qu'en 2006, le Musée a investi 70.000 euros en dépenses de traductions. Si nous ajoutons à cela la variété des textes traités (supports pour les visiteurs, textes à caractère éducatif, catalogues, documentation douanière, contrats…), il n'est pas difficile de se faire une idée des difficultés auxquelles nous nous confrontons. Néanmoins, la première et la plus importante est le manque de terminologie et de textes de référence ayant trait à l'art moderne et contemporain, en langue basque. Souvent nous nous sentons comme des explorateurs en terre inconnue.

Amundsen in the Land of Titanium

In the daily activity of this postmodern Babel, multilingualism is the norm: during the exhibition *Africa 100%*, the language of the Bete people of the Ivory Coast was heard in the corridors; loan agreements are made in Russian, English, French and German, and police commissioners come to us from many different countries. The strategic decision of the Guggenheim Foundation to use three different languages (Basque, Spanish and English) in all media of the Guggenheim Museum of Bilbao has created a volume of translation of unexpected proportions. In 2006 alone, the Museum commissioned translations valued at 70,000 euros. Add to this the variety in the types of texts (media for museum visitors, educational texts, catalogues, customs forms, contracts, etc.) to glimpse the difficulties involved. Indeed, the first and greatest pitfall we encountered was the scarcity of both terminology and reference texts in Basque related to modern and contemporary art. We often feel like explorers in *terra incognita*.